

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

335/2018 Foru Agindua, uztailaren 11koa, baimentzen duena Ricardo Solaun Gonzalezen behin-behineko izendapena Gasteizko Udalbatzako idazkari nagusiaren lanposturako, 2018ko abuztuaren 18tik irailaren 3ra arteko egunetarako (biak barne)

Gasteizko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen horren beharra duela, aipatutako denbora tarte horretan Idoia Martínez Peñalva udalbatzako idazkari nagusia ordezkatzeko.

Horregatik, proposatu du korporazio horretako funtzionario eta Lege Aholkularitzako legelari Ricardo Solaun González behin-behineko izendatzea aldi horretarako.

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioen lege araubidea arautzen duenak, bere 52.4 artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

Kontuan hartu da abenduaren 27ko 27/2013 Legeak, toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunarenak, 25. artikuluan xedatutakoa —apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, aldatzen du 27/2013 lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta—, non finkatzen den toki korporazioetan langileak halaberrez izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa eta 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzkoak, 40. artikuluan jasotako eskumenak betez, haien indarrez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ricardo Solaun González Gasteizko udalbatzako behin-behineko idazkari nagusi izendatzea, eginkizun horretan jardun dezan 2018ko abuztuaren 18tik irailaren 3ra bitartean (biak barne), titularra ez dagoen bitartean.

Bigarrena. Izendapenak aurreko idatz zatian adierazitako aldi bakoitzeko ez du izango indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Gasteizko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2018ko uztailaren 11

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ